

TopaGune ikastaroa: Nola erraztu ekintza komunitarioa herri/hiri antolamendutik eta espazio eta equipamendu publikoen diseinutik?



Ira. 10 - Ira. 11 2024

Kod. G23-24

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2024

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Ira. 10 - Ira. 11 2024

Kokalekua

1. EGUNA: Miramar jauregia 2. EGUNA : Lekuona Farbika (Av. Ugarritza, 1, 20100 Errenteria)

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

20 ordu

Webgunea

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/partaidetza>

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Aurtengo ediziorako **lurraldea ardatz** izatea proposatzen dugu. Lurraldea ikuspegi zabal batetik aztertu nahi dugu, bereziki, gizarte azpiegitura edo komunitarioaren zentzuan oinarritu nahi dugu.

Izan ere, azpiegitura sozial edo komunitario bat pertsonen arteko harreman etengabeak edo errepikakorrak errazteko pentsatutako azpiegitura fisiko moduan ulertzen dugu. Lurralde planifikazioaz ari gara, ekipamendu eta espazio publikoez, eta horien diseinuaz. Gizarte azpiegituraren kontzeptua berriki proposatu du E. Klinenberg-ek, eta esaten digu gizarte azpiegitura dela kapital soziala sortzen duen azpiegitura fisikoa. Gure gizarte harreman kopurua, barietatea eta aniztasuna, gure kapital soziala, funtsezkoa da gure garapen pertsonalerako eta gure ongizate erlazional eta materialerako.

Eskolak, kiroldegia, liburutegia, gizarte etxeak, parkeak eta plazak pentsatu, diseinatu eta antolatu daitezke, jendea bertan elkartu eta harremanak izatea errazteko. Harreman horretatik abiatuta, harreman hori ohikoa edo errepikatua denean, bizilagunen arteko ezagutza eta errekonozimendua, mehatxu partekatuen aurrean elkartasuna eta, azken batean, gizarte kohesioa aktibatzen duten loturak sortzen dira.

Liburutegia, kultura eta hezkuntza zentroak edo espazio publikoak eraiki daitezke, erabiltzaileen arteko harremana, lotura eta ekintza bateratua zein zerbitzuaren efizientzia eta eraginkortasuna edo kalitatea kontuan hartuta.

Kontua ez da nahitaez eraikin berriak eraikitzea, baizik eta egungoei asmo hori ematea. Horrek aldaketak eska ditzake espazioaren diseinu fisikoan eta, batez ere, zerbitzuak antolatzeko eta emateko moduetan harremanak heldu, lagundu eta errazteko.

Ikastaro hau TopaGune motatakoa izango da. Izen hau, partaidetza maila altuena eragiten duten ikastaroei ematen zaie. Kasu hauetan ikastaroen zuzendaria, UIKko zuzendaritza akademikoak eta ikastaroan erraztatzaile lanak egingo dituen pertsonak elkarrekin diseinatzen dituzte eraginkorrenak izango diren teknikak ikastaroa parte hartzailea izateko.

Helburuak

Inspiratzaileak izan daitezkeen adituen eta arituen esperientziak ezagutzeko espazioa sortzea.

Lurraldean ekintza komunitarioaren arloan lanean ari garen eragile ezberdinen arteko elkarriketarako topaleku bat sortzea.

Elkarlanerako bideak zabaltzea.

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



Programa

2024-09-10

Naon Tokin: Herri bat hanibat ahots. Dejabu Antzerki Konpainia.

09:15 - 09:30

Erregistroa

09:30 - 10:00

Inaugurazio instituzionala. Parte hartzeko ordena:

Sarrera instituzionala

Irune Berasaluze Lazkano | Gipuzkoako Foru Aldundia - Gobernantza Diputatua
Mikel Pagola Tolosa | Gipuzkoako Foru Aldundia - Gobernu oneko eta Berrikuntza Politiko Sozialerako Zuzendaria

10:00 - 10:45

“Elkarbizitzarako espazioak giza hartu-emanen oinarri”

Koldo Telleria Andueza | EHU - Arkitektura Goi Eskolan irakaslea

10:45 - 11:20

“1. Atala: Lurralde eta hiri/herri antolamendua komunitatea eraikitzeko”

"Cohesión social, territorio y acción comunitaria"

Ricard Gomá Carmona | Director del Institut Metròpoli . - Profesor del Departamento de Ciencia Política y Derecho Público de la UAB.

11:20 - 11:50

Atsedena

11:50 - 12:20

“1.Atala: Lurralde eta hiri/herri antolamendua komunitatea eraikitzeko”

Hiri-azterketarako adierazleak eguneroko bizitza eta harreman komunitarioen ikuspegitik

Itsaso Larramendi Elexgaray | Tipi - Arkitektoa

12:20 - 13:00

Hizlariekin solasaldia: Lurralde eta hiri/herri antolamendua komunitate eraikitzeko

13:00 - 13:30

“Talde dinamika: Lurralde eta hiri antolaketak ekintza komunitarioa errazteko gakoak.”

Zorione Aierbe Lizarralde | Prometea
Iciar Montejo Romero | Prometea

15:00 - 18:00

2. ATALA: Espazio publikoen diseinuaren garrantzia herritarren arteko harremanak eta ekintza komunitarioa errazteko: ikuspegi bat, lan-tresna bat eta proposamen bat

Hitzaldia

Ikuspegi bat

Ane Lore Mendinueta Bernaras | Gipuzkoako Foru Aldundiko Arkitektoa - Arkitektoa

15:45 - 16:15

“Tresna bat: Projekta Urbes”

16:15 - 16:45 "ESperientzia bat. Hiritik At"

Mikel Valero Alzaga | Hiritik At - Arkitektoa

16:45 - 17:15 Mahai ingurua: " Hizlariekin elkarrizketarako tarteak"

Andere Ormazabal Gaston | EHU - Parte Hartuz Ikerketa Taldeko kidea

17:15 - 18:00 "Talde dinamika: lurralde eta hiri antolaketa ekintza komunitarioa errazteko gakoak."

Zorione Aierbe Lizarralde | Prometea
Iciar Montejo Romero | Prometea

2024-09-11

09:00 - 10:25 Lekuona Fabrikara bisita gidatua _ Visita guiada en Lekuona Fabrika (Erretereria)

10:25 - 10:35 Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena

Irekiera instituzionala

Mikel Pagola Tolosa | Gipuzkoako Foru Aldundia - Gobernu oneko eta Berrikuntza Politiko Sozialerako Zuzendaria
Aizpea Otaegi Mitxelena | Erretereriako Udala - Alkatea

10:35 - 11:05 "3.ATALA: On(h)artzen gaituzten ekipamendu publikoak: diseinutik proiektura. "

Equipamientos que acogen: del diseño al proyecto

José Oscar Rebollo Izquierdo | Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa - Soziologia irakaslea

11:05 - 11:35 "Una Propuesta"

LOKALA. La activación de locales en desuso para usos domésticos y comunitarios.

María Arana Zubiate | URBANBAT

11:35 - 12:00 Atsedena

12:00 - 12:30 "Un proyecto"

Servicios Sociales de cuidados en BIZAN

Maite Ruiz de Sabando Madina | Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz - Equipo de dirección de Servicios Sociales

12:30 - 13:00 "Ikuspegi bat"

Ikuspegi bat kultur ekipamenduetatik: diseinutik proiektura

13:00 - 13:30	Solasaldia hizlariekin: Ekipamendu publikoak diseinutik proiektura
13:30 - 14:25	“Talde dinamika: Ekipamendu publikoen diseinu eta proiektuek ekintza komunitarioa errazteko gakoak” Iciar Montejo Romero Prometea Zorione Aierbe Lizarralde Prometea
14:25 - 14:30	Itxiera

2024-09-12

09:30 - 10:30	Ekintza komunitarioa herri eta lurralde politiken begiradatik (Proposamena: Zaida Muxi)
10:30 - 11:30	Espazio publikoa, generoa eta ongizate komunitarioa. (Proposamena: Miren Vives, Patxi Galarraga)
12:00 - 14:00	Mahai ingurua: Auzoak birpentsatuz garapen komunitarioaren ikuspegitik
16:00 - 18:00	Tailerra : Nola lan egin dezakegu elkarrekin lurraldean?

Zuzendaritza



Mikel Pagola Tolosa

Gipuzkoako Foru Aldundia

Mikel pagola Tolosa Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko- Sozialeko zuzendaria



Miren Arbelaitz Garcia

Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa, Herritarren Partaidetzarako Zerbitzua - Servicio de Participación Ciudadana

Irakasleak



Zorione Aierbe Lizarralde

Prometea

Diseñadora y facilitadora de procesos participativos y de creación colectiva Zorione Aierbe es Licenciada en Ciencias Ambientales por la Universidad Autónoma de Barcelona, con un intercambio de un año con el Van Hall Instituut de Leeuwarden (Holanda). Cuenta con formación de Postgrado en Gestión Municipal de la Agenda 21 Local; Técnico Superior en Gestión Ambiental, Certificación ISO-14001; Gestión Local de Políticas Educativas en la Administración Local; Igualdad de Género; y formación especializada en metodologías para el acompañamiento a personas, equipos y grupos desde diferentes disciplinas. Su experiencia se ha desarrollado sobre todo en el ámbito de la participación ciudadana desde una mirada sistémica, integral y de sostenibilidad, formando parte del tandem fundador de Prometea, SC, empresa en la que desarrolla su actividad desde 2003. En los últimos años ha co-liderado numerosas iniciativas de diseño y facilitación de procesos participativos y de creación colectiva, principalmente con la Administración Pública; aportando, en todos ellos, su compromiso por el trabajo de calidad y construido con las personas y entidades



María Arana Zubiate

URBANBAT KOOP

María Arana Zubiate arkitektoa, ikertzailea eta komisarioa da. Lan esperientzia handia du arkitekturari eta hirigintzari buruzko hainbat azterlanetan, eta Hiri Antolamenduko Plan Orokor eta Partzialak eta Obra Egikaritzeko eta Zuzentzeko Proiektuak idazten parte hartu du.



Patxi Galarraga Aiestaran


PROJEKTA URBES

EHUko Donostiako Arkitekturako Goi Eskola Teknikoan ikasitako arkitektoa, PROJEKTA URBES arkitektura- eta hirigintza-bulegoa zuzentzen dut Miren Vivesekin batera. Osasuna, Ekitatea, Zaintza eta Jasangarritasuna ardatz hartuta, erakunde publikoentzako aholkularitza ematen eta proiektuak idazten ditugu, arloen arteko zeharkakotasuna eta arduradun politikoen, teknikarien eta herritarren prestakuntza eta parte-hartzea errazten duten prozesuak txertatuz.



Ricard Gomá Carmona

Politika eta Administrazio zientzian Doktore. UABko Zientzia Politikoa eta Zuzenbide Publikoa Departamentuko irakaslea. Institut Metròpoliko Zuzendaria.



Itsaso Larramendi Elexgaray

Hirigintzaren potentzial politikoan interesatuta nago, eta tokian bizi diren pertsonekin eta pertsonentzako hiri-inguruak sustatzen egiten dut lan. Hirigintza eguneroko bizitzaren ikuspegi eta beharretatik lantzean espezializatua. Tipiko bazkide naiz, eta hiri plangintzarekin harremana duten proiektuen ardura daukat, udal-mailako diseinu eta parte-hartze prozesuak ere bideratzen ditudalarik.



Ane Lore Mendinueta Bernaras

Gipuzkoako Foru Aldundia

2021tik Gipuzkoako Foru Aldundiko arkitektoa da, Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuan. 2002an arkitekto-urbanista ikasketak burutu ondoren, zortzi urtez, bulego propioa izan zuen. Etapa horretan, pare bat urtez, bulegoko lana eta udaletxetako arkitekto lana uztartu zituen. Ondoren, beste hamaika urtez udal-administrazio desberdinetan jardun du udal-arkitekto lanetan. Arlo desberdinetan eskarmentua dauka, hala nola: hirigintza-plangintzan eta diziplinan; udal azpiegituretarako proiektuak idatzi eta zuzentzen; partikularrentzako proiektuak idatzi eta obrak zuzentzen eta azpiegitura publikoetarako proiektuen eta obren kontratatazioak egin eta hauen jarraipenak egiten. Udal teknikari lanetan, hainbat parte-hartze prozesuetan ere aritu da, espazio publikoetarako proiektuen diseinuetan.



Iciar Montejo Romero

Prometea, S.C., socia

Diseñadora y facilitadora de procesos participativos y de creación colectiva Iciar Montejo Romero es licenciada en Ciencias Económicas y Empresariales por la Universidad del País Vasco. Cuenta con formación de Postgrado en Participación y Desarrollo Comunitario, Resolución de Conflictos Públicos y Ordenación y Gestión del Territorio; Cursos de Doctorado en Economía Internacional y Desarrollo Humano Sostenible; Igualdad de Género; y formación especializada en metodologías para el acompañamiento a personas, equipos y grupos desde diferentes disciplinas. Su experiencia se ha desarrollado sobre todo en el ámbito de la participación ciudadana desde una mirada sistémica, integral y de sostenibilidad, formando parte del tándem fundador de Prometea, SC, empresa en la que desarrolla su actividad desde 2003. En los últimos años ha co-liderado numerosas iniciativas de diseño y facilitación de procesos participativos y de creación colectiva, principalmente con la Administración Pública; aportando, en todos ellos, su visión estratégica y su pasión por el trabajo con las personas y por lo público.



Andere Ormazabal Gaston

EHU Partehartuz, Irakaslea

Andere Ormazabal (Donostia, 1981). Politika eta Administrazio Zientzietan, Soziologian eta Antropologian lizentziaduna eta Politika Zientzietan doktorea da, eta Partaidetza eta Komunitate Garapena (2017) eta Ikasketa Feministak eta Generokoak (2010) masterrak egin ditu, denak Euskal Herriko Unibertsitatean. EHUko Politika eta Administrazio Zientzien Saileko irakaslea da. Parte Hartuz Ikerketa Talde Kontsolidatuaren baitan, ondorengo ikerketa lerroak jorratzen ditu: partaidetza, herri mugimenduak eta gobernantza. Joxemi Zumalabe Fundazioko kidea da.



Aizpea Otaegi Mitxelena

Soziologian eta Politika Zientzietan lizentziatua da eta Elhuyar Fundazioko Aholkularitza Zerbitzuan

koordinatzaile nagusia izan da 2019an Errenteriako alkate aukeratua izan arte. Fundazioan politika publikoen arloko aholkulari lanetan jardun du batez ere hizkuntzaren normalizazioa eta berdintasuna gaiak landuz. Horrekin batera, Udako Euskal Unibertsitateko hainbat ikastarotan parte hartu izan du hizlari gisa, bai bi gai horiek jorratuz eta baita pandemia garaiko esperientzien inguruko azalpenak emanez.



Mikel Pagola Tolosa

Gipuzkoako Foru Aldundia

Mikel pagola Tolosa Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko- Sozialeko zuzendaria



José Oscar Rebollo Izquierdo

Director del Servicio de Acción Comunitaria del Ayuntamiento de Barcelona, ha sido Director del Instituto de Gobierno y Políticas Públicas (IGOP) de la Universitat Autònoma de Barcelona (UAB) y Profesor de Sociología de la Universitat Autònoma de Barcelona. Las líneas de investigación principales que ha desarrollado han sido: Políticas de proximidad, Desarrollo local y regeneración urbana, así como Metodologías participativas. Ha trabajado como asesor de diversos gobiernos locales (Barcelona, Girona, L'Hospitalet, Donostia/San Sebastián, Rubí, Sabadell, Terrassa, y otros), así como de otros organismos e instituciones como: Diputació de Barcelona, Observatorio Internacional de la Democracia Participativa (OIDP), Fundación Eroski, Fundación Kaleidos, y otras. En estos años ha coordinado proyectos de transformación urbana como planes comunitarios, proyectos de urbanismo participativo, planes integrales de barrios, planes estratégicos, agendas locales 21, entre otros. Autor de diversas publicaciones en la materia. En septiembre de 2022 se incorpora como profesor de Sociología en la UAB



Maite Ruiz de Sabando Madina

Ayuntamiento Vitoria

Gizarte langilea da, eta gaur egun Psikologiako graduiko ikasketak amaitzen ari da. Etika soziosanitarioan aditua. Gasteizko Udaleko Gizarte Politiketako Saileko koordinatzailea da. 26 urte jardunean; horietatik 20 urte adinekoen arloan lan egin du, BIZAN sarearen komunitate-proiektua (adinekoentzako harreman- eta topaketa-guneak) eta familia zaintzaileei laguntzeko programa gidatuz eta inplementatuz. Azken 3 urte hauetan, Sailaren zeharkako gaiak koordinatzeko eginkizunak bete ditu: indarkeria matxista, haurren babesgabetasuna, familiei laguntzea, gizarteratzea eta abar, eta beste gai berritzaile batzuk, hala nola gizarte-zerbitzuen irudia hobetzea, gogoeta egitea eta komunitatean zaintza-zerbitzu sozialen ikuspegi baterantz aldatzea



Koldo Telleria Andueza

UPV/EHU

Koldo Telleria Andueza (Segura, 1972) arkitekturan lizentziatua da EHUn, Hirigintzan diplomatua ere bada eta Sevillako UPOn eta Antropologian Master bat dauka. Hiri Kolektiboa sortu zuen 2002an eta hirigintzarako parte-hartze prozesu ezberdinak diseinatu, zuzendu nahiz gauzatu ditu Euskal Herriko testuinguru ezberdinetan. Saharan, Mozambiken eta Pakistanen aritua da kooperazio lanetan. EHUko arkitektura eskolan irakaslea da. Gaur egun, hirigintza eta lurralde antolamenduan gizartearekin elkar lanean eta ikerketan dihardu.



Iker Tolosa Lafuente

Donostia Kultura, Kultur Etxeko zuzendaria

Kazetaritzan lizentziatua, hamabost urte baino gehiago eman ditu kulturaren, ia guztiak kudeaketa publikoan. Denbora honetan, Donostiako hainbat auzoetako Kultur Etxeetako zuzendaria izan da (Altzan, Amaran, Antiguan eta Loiolan). Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutzan antzerki eta dantza sorkuntza egonaldi eta bitartekaritza, eta nazioarteko elkartruke programak kudeatu ditu, Hazitegiak Kaiaren arduradun gisa. Europa eta Afrikako bazkideen parte-hartzea izan duten Corners Of Europe, Joan Etorriak, edota Share proiektuetan koordinazio orokor eta publikoen gaineko ardurak bete ditu. Olatu Talka jaialdiaren antolaketaz ere arduratu da hainbat ekitaldietan. 2018-2023 bitartean, Errenteriako Kultura Teknikaria arduradun zereginetan aritu da. Garai honetan bertako kultur plan estrategikoa burutu eta Lekuona Fabrikaren kultur proiektuaren diseinuaz eta martxan jartzeaz arduratu den lantaldearen arduraduna izan da. Gaur egun, Intxaurren eta Larrotxene Kultur Etxeetako zuzendaria da.



Mikel Valero Alzaga

"Arkitektoa formakuntzaz. Donostia eta Ljubljana-ko arkitektura eskoletan burutu nituen ikasketak. Mugimendu sozialetan ibilitakoa naiz eta ekonomia sozialean oinarritutako hainbat esperientzetan parte hartu izan dut. Nire lekukotasun ikuspegia formakuntzaz gain, esperientziaz datorkit. Hiritik At-en, prozesuen diseinuaz eta antolaketaz arduratzen naiz. Besteak beste, auzo planen garapenean edota lurralde burujabetza proiektuen dinamizazioan ibiltzen naiz."



Miren Vives

EHUko Donostiako Arkitektura Goi Eskola Teknikoan ikasitako arkitektoa, PROJEKTA URBES arkitektura- eta hirigintza-bulegoa zuzentzen dut Patxi Galarragarekin batera. Hiri eta auzo osasungarriago eta bidezkoagoak sustatzen ditugu, pertsonen eguneroko bizitzan eta ongizate fisikoan, mentalean eta sozialean ingurune urbanizatuak eta eraikiek duten eragina oinarri hartzen duten diagnostikoen eta proiektuen bitartez. Horretarako hainbat ikuspegi hartzen ditugu ardatz, besteak beste generoa, zahartze aktiboa, haurtzaro autonomia, aniztasun funtzionala edota ahalmen ekonomikoa.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2024-05-31 ARTE	2024-09-10 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	50,00 EUR
UIK euskaraz	-	71,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	61,00 EUR
Matrikula exentzioa	-	50,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	-	61,00 EUR
Elkar	-	61,00 EUR

Kokalekua

1. EGUNA: Miramar jauregia 2. EGUNA : Lekuona Farbika (Av. Ugarritza, 1, 20100 Errenteria)

Gipuzkoa